

2017ko urriaren 13a, ostirala

XEDAPEN OROKORRAK

LEHENDAKARITZA

4895

230/2017 DEKRETUA, urriaren 10ekoa, Kanpo Harremanetarako Aholku Batzordea sortu eta arautzen duen Dekretua aldatzen duena.

Ekainaren 28ko 96/2016 Dekretuaren bidez sortu eta arautzen da Kanpo Harremanetarako Aholku Batzordea, kide anitzeko organoa, Euskadi nazioartekotzeko prozesua sustatzeko aholkularitza eskainiko duena.

4. artikulua ezartzen du Batzordearen osaera; artikulua horren 1.f) letraren arabera, besteak beste, Kidego Kontsularreko dekanok osatzen du batzordea.

Kidego Kontsularreko egungo dekanok adierazi du ezingo duela parte hartu batzordean; beraz, Euskadiren nazioarteko proiektioan oinarritzkoa den eragile baten partaidetza errazteko, Kidego Kontsularreko Zuzendaritza Batzordeak proposatu du zuzendaritza-batzordeko kide batek betezea ordezkaritza hori. Kide hori zuzendaritza-batzordeak izendatuko du.

Horrenbestez, lehendakariak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak 2017ko urriaren 10ean egindako bilkuran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Ekainaren 28ko 96/2016 Dekretuaren 4.1.f) artikulua aldatzen da. Artikulu hori honela idatzia geratuko da:

«f) Kidego Kontsularreko Zuzendaritza Batzordeko kide bat, batzorde horrek izendatua.»

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko urriaren 10ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.